

EUSKERA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2019



**Bilbao**

**Az**  
Azkuna Zentroa  
AlhóndigaBilbao

ARTE BIZIAK / DANTZA **MAR. 7** (ostg.)

# Ibon Salvador & Joseph Simon

*BLUR #1 & Pseudo-chameleon*



Ibon Salvador



Joseph Simon

Ibon Salvador eta Joseph Simon artistek *BLUR #1* eta *Pseudo-chameleon* aurkeztuko dute, dantza garaikideko egonaldian Azkuna Zentroan eta Dansateliers Rotterdam zentroan egin duten lanaren emaitzak, Danimarkako dantza garaikidea sortzeko eta erakusteko zentroarekin elkarlanean eta trukean aritzeko egindako akordioari esker sortuak.

Koreografoek Bilbon aurkeztuko dituzte piezak, otsailean Herbehereetako Dantza Garaikideko Moving Futures Festival 2019 jaialdian eszenaratu ondoren.

*BLUR #1* bakarkakoa sortzeko proiektuaren abiapuntuan, gorpuztasun garaikidea jartzen da auzitan. Horretarako, kontzeptu-praktika honetan oinarritzen da: dantzariaren irudia hein batean edo erabat desegitean. Horrek galdera bat ekartzen du berehala, eszenan kokatzen den gorpuzari buruz eta hura aurkezteko (edo ez aurkezteko) moduei buruz, bistaratzeko (edo ez bistaratzeko) moduei buruz.

Bestetik, Joseph Simonek *Pseudo-chameleon* aurkeztuko du: dantzak berezkoak dituen hizkuntza guztien ezaugarriak hautemateko modua ikertzen duen proiektua.

////////////////////////////////////

**Martxo 7, osteguna**

19:30

**JOSEPH SIMON**

Lantegia 2

**IBON SALVADOR**

Auditorioa

10€ / 8€ Az Txartelarekin

Sarrerak: Infopuntua eta

[www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)

////////////////////////////////////

**Dansateliers**

 [www.dansateliers.nl](http://www.dansateliers.nl)

 #dansateliers

 @dansateliers

 @dansateliersrotterdam

**Ibon Salvador**

 #ibonsalvador

**Joseph Simon**

 #josephsimon6962

////////////////////////////////////

**Sabadell**  
Fundación

Fundación Banco Sabadellek egonaldi artistikoen Amphitryon programa babesten du, artea eta kultura sustatzeko eta hedatzeko duen programaren barruan.



Praktika Artistikoen egonaldia euskal hizkuntza eta kultura mundu osotik zabaltzeaz arduratzen den Etxepare Euskal Institutuaren laguntza du.

////////////////////////////////////

**JOSEPH SIMON** (Frantzia, 1989) Simonek dantzaren eta mugimenduaren hainbat hizkuntza ikertzen ditu, gorpuzt beraren bidez, etengabe ikasiz, bai dantza urbanoekin, bai mugimendu garaikideekin. Dantza garaikidea ikasitako break dance dantzaria delarik, herrialde ugarian bizi izan da, eta lau hizkuntzatan baino gehiagotan hitz egiten daki.

**IBON SALVADOR** (Bilbo, 1980) koreografoaz gain, performerra, artista kolaboratiboa, eta Coletivo Qualquer proiektuaren sortzailea da (2008), Luciana Chierregati koreografoarekin batera. Azkenaldiko lan artistikoetan, ikertzen aritu da Salvador, sorkuntza- eta lankidetzat-testuinguruetan garatutako berriazko tresna koreografikoekin eta ikaskuntza kolektiboko egiturekin.

////////////////////////////////////

Egonaldi artistikoen programari buruzko informazio gehiago 72. orrialdean

Lankidetzat:

